



Gizarte Hezkuntza

4. MODULUAREN GIDA

GIZARTE ETA HEZKUNTZA
PROGRAMEN PLANGINTZA,
KUDEAKETA ETA
EBALUAZIOA



2019-20

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MODULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK	4
MODULUAREN EGITURA	5
MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)	6
METODOLOGIA: PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA	6
IKASKUNTZA PROZESU HORRETAN EGINGO DITUGUN URRATSAK	7
MDJREN EBALUAZIOA (PROZESUA, IRIZPIDEAK ETA NOTAK)	10
IRAKASGAIEN ZERRENDA: BAKOITZAREN KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK ETA EDUKIAK	12
WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK	17

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

AURKEZPENA

Gizarte Hezkuntzako Graduko 4. moduloa, **"Gizarte eta Hezkuntza Programen Plangintza, Kudeaketa eta Ebaluazioa" izenekoa, aurreko** moduluen (hezkuntzako profesional orok menperatu beharreko testuinguruak, lanbideak eta hezkuntza prozesuak ulertzeko oinarri zientifikoak ezartzen dituztenen) eta ondorengoan (esparru desberdinetako gizarte eta hezkuntza esku-hartzeen azterketara gerturatuko gaituztenen) arteko zubia da. Ikasleei gizarte hezkuntzaren zeregin profesionalak eta prozedurak irakastea du helburu, besteak beste: beharren diagnostikoa, programen diseinua eta ebaluazioa, berrikuntza eta ikerketa. Horrek guztiak gizarte eta hezkuntza esku-hartzeei aurrea hartzea eta horien segimendua eta balorazioa egitea ahalbidetzen du, aurkitzen dituzten laneko egoeretara egokitutako prozedurak hezkuntza senez erabilita.

Esku-hartzearen Plangintza, Gizarte eta Hezkuntza Zerbitzuen eta Programen Ebaluazioa eta Gizarte eta Hezkuntzako eta Bazterketa Egoeretako Esku-hartzea: Proposamen Metodologiko Orokorrak irakasgaiak funtsezko 3 ardatz dira erabakiak hartzeko hezkuntza prozesuen balioa ulertzeko eta horiei metodo eta teknika egokiekin aurre egiten jakiteko.

Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa eta Informazio eta Komunikazio Teknologiai Gizarte Hezkuntzan irakasgaiek informazioa (sinbolikoa izan edo ez) aztertzeko eta interpretatzeko beharrezko tresnak ahalbidetuko dizkigute, baita informazio hori hedatzeko tresnak ere, betiere, esku-hartzea hobetzeko eta lanbidearen barnean hezkuntza ezagutza areagotzeko helburuarekin.

Modulu honen MDJ gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektu bat egitean datza, hori baita gizarte hezkuntzako profesionalek menperatu beharreko oinarrizko puntuetako bat. Lan horrek ikaslea gizarte eta hezkuntza esku-hartze bat prestatzeko beharrezko elementuei buruz pentsatzera eta erabakiak hartzera bultzatzen du, horri buruzko hausnarketa egiteko baldintzak ezartzen ditu eta esku-hartzea hobetzeko gakoak ahalbidetzen ditu.

Modulu honen gaitasun orokorrak eta zeharkakoak menperatzeko, hezkuntza arrazoibide bat eratu behar da, ikuspegi kritiko batetik. Horretarako, egiazko hezkuntza egoera edo arazo bati buruzko txosten bat idatzi eta ahoz defendatu beharko dute ikasleek (Moduluaren Diziplinarteko Jarduera, MDJ).

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

MODULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Aurreko moduluetan zehaztu bezala, **gaitasuna "zenbait egitura kognitibo, intelektual eta emozional mobilizatzen dituen ikasketa zehaztua eta konplexua da, helburu gisa lan bizitzako eta/edo bizitza pertsonaleko arazoak edo egoerak konpontzea duena". Gaitasunaren lorpen maila** ikaskuntzaren emaitzen bidez ikus daiteke.

Hauek dira 4. moduluan lortu beharreko gaitasunak eta horien ikaskuntzaren emaitzak:

GAITASUNAK
4G1: Esku-hartze prozesuetan parte hartzen duten gizarte eta hezkuntza programen plangintzaren, kudeaketaren eta ebaluazioaren oinarri teorikoak ezagutzea, baita gizarte eta hezkuntza ikerketak esparru honi egindako ekarpenak ere (GO1) ¹ .
4G2: Beharrak zehaztea eta esku-hartze programak planifikatzea eta ebaluatzea, eredu eta testuinguru desberdinen arabera, horretarako egokitutako tresnak erabiliz eta lanbideko kode etikoak errespetatuz.
4G3: Baliabide profesionalen, eskuragarri dagoen dokumentazioaren, eta abarren testuinguru espezifikoetan eragin handiena duten prozedurak eta teknikak hautatzea, testuinguru profesional honetan erabili ahal izango den diseinu bat gauzatzeko.
4G4: Hezkuntzako ikerketa ereduak bereiztea eta horiek aplikatzearen ondorioz eskuratutako informazioa egiazko testuinguruetan planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio lanak egiteko erabiltzea.
4G5: Baliabide teknologikoak erabiltzea gizarte eta hezkuntza esku-hartzearen planifikazioa, kudeaketa eta ebaluazioa egiteko, baliabide horiek lana erraztuko diguten tresna malgu gisa hartuta.
4G6:*Gizarte eta hezkuntza arloko ideiak, argudioak, eta abar ahoz komunikatzen jakitea, aurrez aurre edo web 2.0 erabilia; eta informazio hori idatzizko txostenetan jasotzen jakitea.
4G7:*Moduluaren jardueretik eta ikaskuntzarako lanetik jarrera positiboa erakustea.

IKASKETA EMAITZAK
- Ikerketa prozesuetan informazioa biltzeko prozedura desberdinak erabiltzea, kuantitatiboak eta kualitatiboak, ikerketaren helburuen arabera. - Emandako datu narratiboak gerturatze analitiko desberdinak (besteak beste, programa informatikoak) erabilia interpretatzea.

¹ GO siglek titulazioaren gaitasun orokorreari egiten diete erreferentzia.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

- Emandako ikerketa helburu bat oinarritzat hartuta, taldean ikerketa proiektu bat diseinatzea.
- Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze bat diseinatzea, kudeaketarako plan bat barne hartuko duena eta emandako testuinguru eta egoera zehatzei egokituko zaiena.
- Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze programa eta/edo zerbitzu bat ebaluatzeko plan espezifiko bat diseinatzea.
- IKTak erabiltzea, hezkuntza eta gizarte errealitatea ulertzeko eta aztertzekeo tresna gisa, gizarte eta hezkuntza programen planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio prozesuetarako.
- Egiten dituzten diseinuetan eta aurkezpenetan IKTak erabiltzea.
- Egiazko hezkuntza egoera baterako esku-hartze programa bat diseinatzea.

4. MODULUAREN EGITURA

Moduluaren egiturak aipatutako bost irakasgaiak eta MDJ (Moduluaren Diziplinarteko Jarduera) barne hartzen ditu, grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

MODULUAREN DIZIPLINARTEKO JARDUERA (MDJ)

Gure ustez, MDJren helburua ikasle bakoitzak hezkuntza arrazoibide bat ikuspegi kritiko batetik eraikitzeke prozesu bat garatzea da. Zehazki, modulu honetan, ikasleek gizarte eta hezkuntza proiektu bat egin eta aurkeztu beharko dute taldean, diziplinarreko ikuspegia oinarritzat hartuta. Horregatik, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren (POI) metodologia erabiltzea erabaki dugu.

MDJren metodologiaren euskarria mintegia izango da, bi edo hiru ikasle taldek eta irakasgaiko irakasleak osatuko dutena. Irakaslearen funtzioa irakatsi eta ikasteko prozesua erraztea izango da.

MDJ nahitaezkoa da eta 5 ECTSko balio akademikoa du. Bigarren lauhilekoan egiten da. Bertaratutako 6 saio barne hartzen ditu, bi ordukoak, eta irakasgaiaren irakaskuntza egiturak tutoretza saioak eta ikasleen lan autonomia uztartzen ditu. Ikasturteko lehen astean, MDJn jarraitu beharreko planteamendu metodologikoa landuko dugu, eta proiektua gauzatzeko beharrezko orientazioak emango ditugu.

Metodologia: Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza

Modulu honetan garatutako metodologiaren oinarria irakasgai desberdinetako edukiak integratzea da, eta, horretarako, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza erabiltzen dugu, irakatsi eta ikasteko prozesuan parte hartzen duten guztiak modu kooperatiboan parte hartzera bultzatuz.

Mintegia osatzen duen ikasle taldea irakaslearekin biltzen da, moduluko gaitasun zehatzak errazago eskuratu ahal izateko gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektu bat diseinatzeko.

Proiektua bizitza profesionalarekin lotuta dago, eta, gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da ikasleek hainbat puntu zehaztea: zer hipotesi diren beharrezkoak eta zertarako, zer informazio den garrantzitsua eta zertarako, eta zer urrats egin edo prozedura gauzatu behar diren proiektua gauzatzeko.

Prozesu honetan, ikasleek hainbat urrats eta etapa lantzen dituzte, proiektuaren testuingurua aztertu eta proiektua identifikatu eta justifikatzetik hasi eta guztiz diseinatu arte. Egoera zehatz baten aurrean proposamen desberdinak sor daitezkeela uste dugu; beraz, proiektuaren garapen egokia garrantzitsua da, baina baita puntu horretara iristeko prozesu osoa ere.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

Ikaskuntza prozesu horretan egingo ditugun urratsak

Moduluaren aurkezpen lehen astean, irakasle-taldeak aurkeztuko du gizarte-hezkuntzazko proiektua zein arlo zehatzean aurrera eramango den. Jarduera-eremuaz gain, eremu horretaz informazioa eta bibliografia emango dira, baita ere lan kronograma.



Taldearen osaketa

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK	ENTREGATZEKO LANAK
Nola osatuko dugu gure taldea?	Taldekideen artean zereginak banatzea	Taldea eratzeak akta eta bilkuretako aktak

Agertokia. Abiapuntuko egoera

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK	ENTREGATZEKO LANAK
Zer egoera dugu aurrean? Zer dakigu gaiari buruz? Zer zeregin dugu? Zer da gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektu bat? Zein esparrutara dago bideratuta proiektu hau? Zer dakigu esparru horri buruz? Eta bere esku-hartze testuinguruari buruz? Zein dira egoera honetako profesionalak? Eta erabiltzaileak? Zer behar dituzte?	Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektu baten zentzuari buruzko hausnarketa egitea, testuinguru zehatz batean ikusitako beharretatik abiatuta.	Honako deskribapen hauek barne hartuko dituen dokumentu idatzi bat: ★ proposatutako egoera eta horren analisia. ★ gizarte eta hezkuntza arloko proiektu baten orientazioaren eta zentzuaren lehen planteamendua, egoera horretan.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

Gogoeta eta informazio bilaketa

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK	ENTREGATZEKO LANAK
Zer jakin behar eta/edo nahi dugu proiektua gauzatzeko? Nola eta non aurki dezakegu proiektua gauzatzeko informazioa?	Esku-hartze proiektua diseinatzeko beharrezko informazioa bilatzea, iturri desberdinak erabilita, eta informazio hori hautatzea eta aztertzea.	Hauek barne hartuko dituen dokumentu idatzi bat: ★ Bibliografia erreferentzien, webguneen eta bestelako iturrien (informatzaileen, eta abarren) zerrenda. ★ Informazioaren hautaketa eta analisisia.

Diseinua eta proiektuaren lantzea

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK - ENTREGATZEKO LANAK	
Zer proiektu? Zergatik proiektu hori? Norentzat da? Zertarako? Zeri buruz? Nola gauzatu behar da? Nork gauzatuko du? Noiz? Zerekin? Zer, nork, nola eta noiz ebaluatuko du?	Hautemandako beharrei erantzungo dien gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektu bat justifikatzea eta gauzatzea. Esku-hartze proiektuaren diseinuari buruzko dokumentu idatzi bat.	
	<i>Atala</i>	<i>Galdera gidariak</i>
	<i>a. Justifikazioa</i>	Proiektuaren garrantzia, beharra, zentzua, ekarpena, eta abar.
	<i>b. Helburuen zehaztapena</i>	Zer lortu nahi dugu esku-hartze proiektuarekin?
	<i>c. Metodologia eta ekintza plana</i>	Zer ekintza edo zeregin gauzatu behar dira? Zer laneko plan erabiliko dugu? Nola banatuko dugu? Zer epetan?
	<i>d. Baliabideak</i>	Zer giza baliabide, baliabide material, azpiegitura, baliabide ekonomiko, eta abar behar dira proiektua martxan jartzeko?
	<i>e. Ebaluazioa</i>	Zer ebaluatuko dugu? Nola ebaluatuko dugu? Noiz ebaluatuko dugu?

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa

Proiektuaren aurkezpena

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK	ENTREGATZEKO LANAK
Nori aurkeztuko diogu gure gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen diseinua? Nola egingo dugu? Noiz? Zer baliabide erabiliko ditugu?	Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartze proiektuaren aurkezpena diseinatzea, baita entzuleen arabera dagozkion laguntzarako baliabideak ere (digitalak edo bestelakoak).	Aurkezpenaren laburpena eta laguntzarako baliabideen ekarpena.

Jardueren txostena

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK - ENTREGATZEKO LANAK
Nola aurkeztuko dugu MDJn egindako lana?	Dosier, karpeta, txosten, eta abar bakarrean MDJn egindako lan desberdinak biltzea. Azken txostena edo dosierra: 1. Esku-hartze proiektua ○ Oinarriak (proiektuaren garrantzia, beharrak, zentzua, eta abar) ○ Helburuak ○ Metodologia eta ekintza plana ○ Baliabideak ○ Esku-hartzearen ebaluazioa ○ Erreferentziadun bibliografia eta webgrafia ○ Eranskinak 2. Prozesuan sortutako dokumentuak (prozesuan entrega daitezke) 3. Ebaluazioa

Gogoeta eta ebaluazioa

GALDERA ERAGILEAK	ZEREGINAK - ENTREGATZEKO LANAK
Nork ebaluatuko du? Zer ebaluatuko du? Zerekin ebaluatuko du? Zer ikasi dugu? Nolakoa izan da taldearen prozesua? Zein izan da emaitza?	Egindakoari eta ikasitakoari buruzko hausnarketa eta ebaluazioa egitea. Ebaluazioa, autoebaluazioa, heteroebaluazioa, banakakoa, taldekakoa

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

MDJren ebaluazioa (prozesua, irizpideak eta notak)

Gaitasunen bidezko irakaskuntza-ikasketa planteamenduan, beharrezkoa da gogoraraztea gaitasunen balorazioa eta lan baten menperatze mailaren adierazleen balorazioa ezin direla modu independentean egin. Izan ere, gaitasun kontzeptua modu integratuan ulertzen dugu: gaitasuna zeregin konplexu bat konpontzeko prozesua da. Beraz, ez ditugu gaitasunak ebaluatu behar, ikasketa prozesuaren kalitatea eta ikasleek (taldeek) egoera edo arazo bat konpontzeko egindako produktuaren kalitatea baizik. Horretarako, informazio hori biltzea ahalbidetzen duten adierazleak erabiliko ditugu, ondoren horiek egiaztatzeko eta baloratzeko.

Azken finean, ebaluazioak prestakuntzaren zati izan behar duela uste dugu. Prozesuan zehar, bai ikasleek bai irakasleek (lankidetzan jardunez) adierazleak eta ebidentziak erabiliko dituzte lana nola gauzatu ikusteko. Era berean, ikasketen ahulguneak zehazteko eta horiek gainditzeko egin beharreko hausnarketa ezartzeko informazioa eskuratuko dugu. Modu horretan, ikasketak, ditugun zailtasunak eta horiei aurre egiteko moduak aztertuta, ikasketa prozesua indartuko dugu eta prestakuntza prozesu honetan funtsezkoak diren hainbat alderdi hautemango ditugu (horietako batzuk aurreikusi gabekoak).

MDJrako erabilitako saioen egiturak une batzuk berrikusteko, aztertzeko eta hausnartzeko aukera ematen du, prestakuntza prozesuaren segimendua egiteko, eta, behar izanez gero, prozesua berriro orientatzeko helburuarekin.

MDJren azken saioan azken ebaluazio orokor bat egingo dugu. Ebaluazio horrek protagonista desberdinen (ikasle eta irakasleen) informazio esanguratsua bilduko du. Ebaluazioa gauzatzeko, alderdi positiboak eta hobetzeko proposamenak bilduko dituen txosten bat egingo dugu. Modu horretan, ebaluatutakoari buruzko ezagutza eraikitzeke prozesu bihurtzen da ebaluazioa.

MDJren prozesua eta lorpenak baloratzeko adierazleak

MDJren lanaren notak aurrez aipatutako entregatzeko lanak izango ditu oinarri gisa.

Ebaluazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Gidan adierazitako atal guztiak memoriaren proiektuan behar bezala sartzea.
- Adierazitako ideien oinarriak ezartzea, landutako esparru teorikoetatik abiatuta.
- Landutako ezagutzak moduluko hainbat irakasgaitan aplikatzea.
- Ideiak modu koherentean eta ordenatuta aurkeztea.
- Hizkuntza behar bezala erabiltzea.
- Gidan adierazitako lanak garaiz entregatzea.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

Plagioa: ezin da beste norbaitek egindako lana, edo horren kopia edo imitazioa, norberarena izango balitz bezala aurkeztu. Ikasleak aipua egiteko arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioaren susmoak txostena ez onartzea suposa dezake, eta beraz, MDJ ez gainditzea.

Nota jartzeko sistema

Taldeko irakasle tutorearen ardura izango da MDJri nota jartzea; dena den, moduluko gainerako irakasleekin kontsultatu ahal izango du. Gidan zehaztutako urratsak errespetatzen dituzten MDJk bakarrik hartuko dira ontzat.

MDJk gehienez 1,5eko nota jasoko du. Nota hori irakasgaietan lortutakoei gehituko zaie.

MDJ gainditu ezean, irakasgaietan lortu ahal izango den gehienezko puntuazioa 8,5ekoa izango da.

Moduluko Diziplinarreko jardura (MDJ) egiteaz salbuestea

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute Moduluko Diziplinarreko Jardura (MDJ) egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
2. Graduako ikasleek MDJ egin beharko dute, baldin eta, gutxienez, modulu bateko hiru irakasgaietan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute egin beharrik izango.
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten MDJ egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute MDJ.
4. MDJ egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10etik emango da, MDJren % 15 aplikatu gabe.

MDJren ebaluazio jarraituari uko egitea

MDJren ebaluazio jarraituari uko egin beharko dion ikasleak, moduluen lehenengo 9 asteko epearen barruan, moduluko koordinatzaileari idatziz jakinarazi beharko dio.

Ikasle honek MDJ ebaluatzeko moduloko irakasle taldean adostutako banakako froga bat egin beharko du. Moduloko koordinatzaileak edo honek izendatutako irakasle batek froga honen ezaugarriak jakinaraziko dizkio.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

IRAKASGAIEN ZERREDA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

1. GIZARTE ETA HEZKUNTZA IKERKETA

Konpetentzia espezifikoak

1. Gizarte hezkuntzako jardueren lotutako ikerketa eta berrikuntza prozesuak diseinatu eta garatu zeinek gizarte eta hezkuntza arazoaren ebazpena baimen dezaten (KO7).
2. Esku-hartze prozesuetan parte hartzen duten gizarte eta hezkuntza programa, plangintza, kudeaketa eta ebaluazioari egindako ekarpenak ezagutu (4K1/KB).
3. Hezkuntzako ikerketa ereduak bereiztea eta horiek aplikatzearen ondorioz eskuratutako informazioa egiazko testuinguruetan planifikazio, kudeaketa eta ebaluazio lanak egiteko erabiltzea (4K4).

Gai zerrenda

1. Gizarte hezkuntzako ikerketaren oinarriak	Ikerketa ezagutza zientifikorako sarbide gisa. Gizarte hezkuntzako ikerketaren ezaugarri bereizgarriak. Hezkuntza ikerketako gai etikoak.
2. Hezkuntzako ikerketa metodologiak	Hezkuntza ikerketako aniztasun metodologikoa. Sailkapen irizpideak. Hezkuntza ikerketaren modalitateak.
3. Gizarte hezkuntzako ikerketa prozesua	Arazoaren planteamendua eta ikerketaren helburuak. Dokumentazio iturrien azterketa. Hipotesiak eta aldagaiak. Ikerketaren diseinua. Datuen bilketa eta azterketa. Ondorioak.
4. Proiektua, txostena eta ikerketa artikulua	Ikerketa proiektuak, txostenak eta artikulua egiteko ideiak, desberdintasunak eta iradokizunak.

2. ESKU HARTZEAREN PLANGINTZA

Konpetentzia espezifikoak

1. Esku hartze prozesuetan parte hartzen duten gizarte eta hezkuntza programen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioaren oinarri teorikoak ezagutzea, baita gizarte eta hezkuntza ikerketak esparru honi egindako ekarpenak ere (4K1).
--

Gai zerrenda

1. Gizarte eta hezkuntza programen plangintza	Programen plangintza, mota eta eredu desberdinak aztertzea, horien ezaugarri eta fase garrantzitsuenak deskribatuta.
2. Programen eta proiektuen	Plangintzaren barneko elementu eta faseen zentzua eta esanahia sakonago aztertzea: errealitatearen

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

plangintza prozesuaren elementuak eta faseak	azterketaren ondorioak, konpetentziak/helburuak, metodologiak eta estrategiak, jarduerak, baliabideak, denbora banaketa, ebaluazioa eta jakinarazpena. Plangintza parte hartzailea.
3. Esku hartze programen eta proiektuen azterketa	Esparru eta maila desberdinetako hainbat programa eta proiektu aztertzea, eskainitako plangintza desberdinak eta proposatutako hainbat adierazle kontuan harturik.
4. Esku hartze proiektu bat egitea	Esparru zehatz batekin zerikusia duen proiektu bat egitea, azken txostena barne, denen artean egindako diagnostiko bat abiapuntutzat hartuta.
5. Proiektua ezagutaraztea	Proiektua ezagutarazteko hainbat modu diseinatzea, taldeen eta erakundearen arabera.

3. GIZARTE ETA HEZKUNTZA ZERBITZUEN ETA PROGRAMEN EBALUAZIOA

Konpetentzia espezifikoak

1. Programen ebaluazioari dagozkion funtsezko oinarriak, kontzeptuak, ereduak, metodoak eta teknikak erlazionatzeko eta adierazteko gai izan.
2. Esku-hartze testuinguru ezberdinetan aplikatutako ebaluazio prozesuak diseinatzeko eta garatzeko gai izan.

Gai zerrenda

1. Gizarte Hezkuntzan esku hartzeko programak eta zerbitzuak. Ebaluazioaren kokapena esku hartzeko programa eta zerbitzuen barruan	- "Gizarte esku-hartzea" kontzeptua. - Gizarte programazioa eta ebaluazioa. - Ebaluazioaren eginkizuna eta zentzua gizarte esku-hartze prozesuetan. - Gizarte programa eta zerbitzuak; ebaluazio mota desberdinen arteko oreka (helburukakoak, erabakiak hartzeko zein gizarte aldaketa eta garapenerako egiten direnak).
2. Gizarte ikerkuntza eta programen ebaluazioa. Oinarri paradigmaticoak eta garapen funtzionala	- Ikerkuntza, ebaluazioa eta ebaluazio ikerkuntza. - Jakintza eraikitzea -suposizio ontologiko eta epistemologikoak. - Balio irizpideak. - Programen ebaluazioaren paradigmak eta ikuspegiak.
3. Ebaluazio kontzeptua: ebaluazioaren definizioa,	- Helburukako ebaluazioa. - Erabakiak hartzeko ebaluazioa. - Gizarte aldaketa eta garapenerako ebaluazioa. - Ebaluazio arauak eta irizpideak.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

ebaluazio motak eta ebaluazio ereduak.	
4. Programak ebaluatzen diren diseinu metodologikoak	- Zeharkako zein luzetarako diseinuak eta diseinu mistoak. - Kasu azterketa. - Diseinu irekiak eta sortzen ari direnak. - Integrazioa eta triangulazioa.
5. Programen ebaluazioan informazioa biltzeko teknikak eta tresnak	- Inkesta. - Elkarrizketa. - Behaketa. - Eztabaida taldeak
6. Datu azterketa programen ebaluazioan	- Koefiziente nagusiak eta estatistika probak. - Eduki azterketak eta informazio kualitatiboa erabiltzeko - beste teknika batzuk.
7. Txostenak egitea	- Txostenen funtzioak eta hartzaileak. - Txostenen edukia. - Txostenak egiteko prozedura.

4. GIZARTE ETA HEZKUNTZA KO ETA BAZTERKETA EGOETARAKO ESKU-HARTZEA: PROPOSAMEN METODOLOGIKO OROKORRAK

Konpetentzia espezifikoak

1. Gizarte eta hezkuntza esku-hartzeetan inplikaturako oinarri teoriko metodologikoak ezagutu. (4G1) 2. Gizarte eta Hezkuntza programetan beharrak zehaztu eta proposamen metodologikoak planifikatu, eredu ezberdinak jarraituz eta testuinguru anitzaren arabera, tresna egokiak erabiliz eta kode profesional etikoari jarraiki. 3. Berriazko testuinguruetarako prozedurak eta teknikak aukeratu, baliabide profesionalak, eskura dagoen dokumentazio eta abar kontuan izanda, testuinguru profesional horretan abian jartzeko potentzialtasuna duen diseinu bat proiektatu ahal izateko.

Gai zerrenda

1. Alderdi orokorrak	Gizarte eta hezkuntza esku-hartzeetan fokapenak, printzipioak eta aukeratzeko irizpideak proposamen metodologikoetan. - Fokapen metodologiko ezberdinak: a) formatiboa; b) kulturala; c) komunitatearen ongizatearen aukera; d) jokoa; e) parte hartze; f) emantzipazioa; g) inklusiboa.
----------------------	---

GIZARTE HEZKUNTZA KO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

	- Oinarrizko printzipioak: indibidualizazioa-sozializazioa, normalizazioa, autonomia, inklusioa, egokitzea. - Egokiak diren proposamen metodologikoak aukeratzeko irizpideak. Genero ikuspegia esku hartzeko metodologian.
2. Talde esperientzietan oinarritutako esku hartze proposamen metodologikoak	Talde esperientzialak: sozializatorako gune babestuak eta oinarrizko ikaskuntzen garapenerako euskarriak
3. Jolasean eta gizarte eta kultur animazioan oinarritutako esku hartze proposamen metodologikoak	Jolasa, aisia eta denbora libre. Esku hartzeko arazoak eta moduak. Gizarte eta kultur animazioa. Ezaugarriak eta faseak.
4. Bitartekaritza oinarritutako esku hartze proposamen metodologikoak	Bitartekaritza bizitzaren garapen testuinguru desberdinetako (familia, eskola eta komunitatea) gatazka ebazteko proposamen metodologiko gisa.
5. Hezkuntza sistema formalean, ez formalean eta informalean gizarte hezkuntzatik esku hartze proposamen metodologikoak	a) Ikaskuntza kooperatiboa: printzipioak eta esku hartze prozesuak, b) ikaskuntza dialogikoa. Printzipioak eta praktika dialogikoak; c) ikaskuntza eta zerbitzua. Printzipioak eta esku hartze moduak.
6. Ikerkuntza eta Partaidetzako Ekintza oinarritutako proposamen metodologikoak	Ikerketa gizarte eta hezkuntza arloan esku hartzeko metodologia gisa. Ikerkuntzaren eta Partaidetzako Ekintzaren printzipioak. Banakoaren eta gizartearen ahalduzko prozesuak Ikerkuntzaren eta Partaidetzako Ekintzaren bidez
7. Arrisku eta bazterketa egoeran sartzeko ibilbideen sorreran oinarritutako proposamen metodologikoak	Pertsonen parte hartze prozesuak hobetzeko eta gizarte bazterketa eta arrisku egoerak antzemateko zuzenduak. Proposamen metodologikoak: harrerarako eta babeserako metodologiak. Laguntzarako eta zaintzarako. Oinarrizko beharrak asetzeko (gizarte eta osasuna, hezkuntza...) . Gizarte abileziak eta komunikatiboak garatzeko. Gizarte eta lan barneraketarako. Gizarte eta komunitatean parte hartzeko.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

5. INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK GIZARTE HEZKUNTZAN

Konpetentzia espezifikoak

1. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeak planifikatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko baliabide teknologikoak erabiltzea, tresna bideratzaile eta malgu gisa ulertuta.
--

Gai zerrenda

1. Informazio eta Ezagutzaren Gizartea	Perspektiba historikoa. Informazio gizartearen ezaugarriak. Iraultza teknologikoa eta kulturala eta ICTak: Analfabetismo digitala eta gizarte desegokitzapenerako arriskua. Informazio gizarte eta ezagutza gizartearen kontzeptua. Life Long Learning. Gizarte Hezitzailea ezagutza gizartean
2. ICTak eta Hezkuntza	ICTak: kontzeptua. Teknologia analogikoetatik teknologia digitaletara. Irakaskuntza-ikaskuntza prozeduretan: ICTen rola. Teknologia digitalen ezaugarriak: abantailak eta desabantailak. Teknologiaren presentziak sortutako hezkuntza arazoak. TBen aurreko hezkuntzaren erronkak.
3. Hezkuntza baliabide teknologikoak.	Material mota (inpresoak, audiobisualak, eta informatikoak). Material teknologikoen diseinua gizarte-hezkuntzan esku-hartzerako. Materialak aukeratzeko irizpideak: material hezitzaileen ezaugarri pedagogikoak.
4. Web 2.0 eta Gizarte hezkuntza	Ordenagailuek lagundutako hezkuntzatik Web 2.0 hezkuntzara (Blogs, Wikiak, Gizarte sareak...) . Hezkuntza jardueren kudeaketa. E-learning. Plataforma digitalak hezkuntza jardueren kudeaketarako (Moodle).
5. Komunikabideei buruzko hezkuntza	Hizkuntza audiobisuala. Komunikabideen eragina gizartean. Komunikabideen hezkuntza jardueren diseinua. Komunikabideen aurreko ikuspegi kritikoa.
6. ICTen erabileraren egokia gizarte-hezkuntza esku-hartzean	ICTak hezitzailearen lanean. Hezkuntza esku-hartzearen ereduak hezkuntza esku-hartzean.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

WEB ORRIETARA ETA ALDIZKARIETARA ESTEKAK

Web Orriak

Moduluaren garapen osoan hurrengo Web orrialdeak baterako erreferentziak dira.

Gizarte Hezkuntzaren ataria: <http://www.eduso.net>. Web orrialde hau oso interesgarria da, izan ere, gizarte hezkuntzari buruzko mota askotako informazioa barne hartzen du (1.700 esteka baino gehiago ditu). Gizarte hezitzaileen elkargoetako web orrialdeetarako eta RES aldizkarirako sarbidea eskaintzen du. Horrez gain, gizarte hezkuntzako dokumentu profesionalizatzaileak eskura daitezke bertan:

ASEDES eta Hezitzaileen Elkargoen Kontseilu Nagusia. (2007). *Documentos profesionalizadores: Definición de Educación Social. Código deontológico del educador y educadora social. Catálogo de funciones y Competencias del educador y educadora social*. BARTZELONA: ASEDES.

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa: <http://www.ceespv.org/web/index.php>

Alboan. <http://www.educacion.alboan.org/>. **Cooperación al desarrollo e interculturalidad. Materiales didácticos Foro Mundial de la Educación.**

Amnistía Internacional: <http://www.es.amnesty.org/index.php>. **Página de la sección de Catalunya de Amnistía Internacional con una historia de los DDHH, y otras secciones muy interesantes de documentos, propuestas, definiciones,...**
<http://www.amnistiacatalunya.org/edu/es/historia/index.html>

Ararteko, defensoría del pueblo: www.ararteko.net. Recoge, informes, documentos, artículos, área sobre derechos de las personas, colectivos en riesgo de exclusión,...

Area Moreira, Manuel: <http://webpages.ull.es/users/manarea>

Asociación Enseñantes con gitanos: <http://www.pangea.org/aecgit/>

Biblioteca Digital De La OEI. <http://www.oei.es/bibliotecadigital.htm>

Blog de Educación Social. <http://www.educablog.es/category/diario-de-un-educador/>

Boletín Oficial del Estado: www.boe.es.

Centro de Documentación de alternativas pedagógicas.

<http://www.utopiayeducacion.com/2006/07/alternativas-pedaggicas-y-educacin.html>

Centro De Recursos Documentales E Informáticos (CREDI).

<http://www.oei.es/forms/suscripciones/crediformulario.php>

Comunidad de Educación no formal:

<http://www.xmarks.com/site/educalia.educared.net/edujs/%3Fidioma=es>

Comunidades de aprendizaje: <http://utopiadream.info/ca>

Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

www.gizartelan.ejgv.euskadi.net

Derecho Internacional en materia de DDHH <http://www.derechos.org/nizkor/ley/>

Referencias y enlaces a todo tipo de tribunales, instancias,...

<http://www.derechos.net/links/esp/ley/>,

<http://www.derechos.org/index/esp.html>

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa

Diputación Foral de Bizkaia: www.bizkaia.net

Directorio de Entidades y Centros de Servicios Sociales del Gobierno Vasco.
www.direktorioa.net

Educación social: <http://www.educacion-social.com>

Eduso: **Portal de Educación Social** www.eduso.net

Emakunde. <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/es/>. Instituto Vasco de la mujer. **Enlaces a programas de coeducación, prevención de violencia de género, sensibilización social... Enlace con Berdingune (Gizonduz) y Defentsoria.**

Eudel. (Berdinsarea). <http://www.eudel.net/destacados/berdinsarea> Area de Igualdad de Municipios Vascos. Protocolos y Planes de Igualdad. Acceso a **Programa Beldur Barik (fomento de igualdad entre jóvenes)**
<http://www.beldurbarik.org>

Eurydice: Information of education System and Policies in Europe.
<http://eacea.ec.europa.eu/education/eurydice/>

Federación SUSMOA (Desarrollo Comunitario en Bilbao):
<http://susmoa.wordpress.com/>. Acceso a las cuatro entidades que la integran.

Fundación Pere Tarrés. <http://www.peretarres.org/> **En esta página podéis acceder a revistas y publicaciones en catalán y en castellano.**

Fundación Ruy López: <http://www.fundacionruylopez.org>

Instituto de Derechos Humanos Bartolomé de las Casas. Universidad Carlos III:
http://www.uc3m.es/portal/page/portal/instituto_derechos_humanos

IVEI/ISEI: **Instituto Vasco de Evaluación e Investigación Educativa.**
<http://www.isei-ivei.net/cast/indexcas.htm>

Ministerio de Educación y Ciencia: <http://www.mec.es>

MUGAK, centro de Estudios y Documentación sobre racismo y xenofobia de SOS
Racismo/SOS Arrazakeria <http://www.mugak.eu/>

Observatorio de Ética aplicada a la intervención social
<http://etica.campusarnau.org>

Organización De Estados Iberoamericanos para la Educación, la Ciencia y la
Cultura. <http://oei.es>.

PANGAEA: <http://www.pangea.org>

Portal educativo del Gobierno Vasco (**Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco:** www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Proyecto INNOVA. Portal de Educadores. Innovación educativa:
<http://sites.google.com/a/red-innova.net/web>

Red de Educadores y Educadoras latinoamericanos: **Compuesta por más de 200 de diferentes países y con la finalidad de compartir e intercambiar experiencias.**
<http://www.edusol.info/es/bitacora/irisfz/red-educadores-latinoamericanos-200-integrantes>

Red iberoamericana de animación sociocultural. <http://rianimacion.org> Desde esta dirección podéis acceder a cerca de cien entidades y organismos que trabajan en este campo; también a las revistas de la red.

Siis, Centro de Documentación y estudios. - <http://www.siis.net>

Swetswide: Education and prevention <http://www.swetswise.com/>

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

Unesco : <http://www.unesco.org/new/es/unesco/> . Unesco y los instrumentos
normativos Educación: <http://www.unesco.org/new/es/education/standards-and-norms/>
 Unicef: www.unicef.es

Aldizkari digitalak

• AGORA DIGITAL: http://www.uhu.es/agora/version01/digital/numeros/numeros_ppal.htm • AIDIPE: Asociación Interuniversitaria de Investigación Pedagógica. http://www.uv.es/aidipe/ • ANIMADOR SOCIOCULTURAL: REVISTA LATINOAMERICANA: http://www.lazer.eefd.ufri.br/anima dorsociocultural/ • AULA DE INNOVACIÓN EDUCATIVA. http://www.grao.com • BOLETÍN DE INVESTIGACIÓN- ACCIÓN. http://www2.peretarres.org/projecte ssocials/butlleti/13/index_cs.html • CIDE: Centro de Investigación y Documentación Educativa del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte. http://www.mec.es/cide/ • CINDOC (Centro de Información y Documentación Científica). http://www.iedcyt.csic.es/ • COMUNICAR. Versión on-line, y digital. http://www.revistacomunicar.com/ • CONTEXTOS EDUCATIVOS. http://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=328 • CUADERNOS DE PEDAGOGÍA: http://www.cuadernosdepedagogia.com/ • CULTURA Y EDUCACIÓN. http://www.fia.es/revistas • EDUTEC: http://www.uib.es/depart/gte/revele c1.html • EL CORREO DE LA UNESCO. http://www.unesco.org/new/es/unesco-courier/	• QRE. INVESTIGACIÓN CUALITATIVA EN EDUCACIÓN. http://www.hipatiapress.info/hpjournals/index.php/qre • RED DIGITAL: revista de Tecnologías de la Información y Comunicación Educativas. http://reddigital.cnice.mec.es • REME (Revista electrónica de Motivación y emoción). http://reme.uji.es/ • REMIE (revista multidisciplinar de Investigación educativa) http://www.hipatiapress.com/hpjournals/index.php/remie • RES. Revista de Educación Social. http://www.eduso.net/res/ de gran interés es concretamente el monográfico sobre Educación Social y Tecnologías de la Información y la Comunicación de Febrero de 2010 (nº 11). • REVISTA DE EDUCACIÓN, http://www.revistaeducacion.mec.es/ • REVISTA EDUCACIÓNXX1. http://www.uned.es/educacionXX1/ • REVISTA ELECTRÓNICA SOBRE DERECHOS HUMANOS Y DERECHO HUMANITARIO. http://www.derechos.org/koaga/ • REVISTA ELECTRÓNICA DE HUMANIDADES, EDUCACIÓN Y COMUNICACIÓN SOCIAL. http://www.publicaciones.urbe.edu/index.php/REDHECS • REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN. Version digital e impresa; http://www.rieoei.org/
--	---

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*

• ERIC. Educational Resources Information Center. http://eric.ed.gov/ • GÉNEROS http://dialnet.unirioja.es/servlet/revista?codigo=19456 • HEMEROTECA VIRTUAL DE SUMARIOS DE REVISTAS CIENTÍFICAS: http://dialnet.unirioja.es • HIK HASI hezkuntza aldizkaria. Revista de enseñanza Vasca. www.hikhasi.com • MASCULINIDADES Y CAMBIO SOCIAL. http://www.hipatiapress.info/hpjournals/index.php/mcs • MONITOR EDUCACIÓN. http://www.monitoreducador.org/. • NETDIDACTICA http://www.netdidactica.com • PEDAGOGÍA SOCIAL. http://www.uned.es/pedagogiasociales/revistainteruniversitaria/ • PIXEL-BIT http://www.sav.us.es/pixelbit • PROFESORADO. REVISTA DE CURRÍCULUM Y FORMACIÓN DE PROFESORADO. http://www.ugr.es/local/recfpro • QUADERNS DIGITALS. http://www.quadernsdigitals.net • QURRICULUM. http://webpages.ull.es/users/revistaq/.	• REVISTA IBEROAMERICANA DE EVALUACIÓN EDUCATIVA. http://www.rinace.net/riee/ • REVISTA IBEROAMERICANA DE EDUCACIÓN A DISTANCIA http://ried.utpl.edu.ec/ • REVISTA INTERUNIVERSITARIA DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO. Tiene version impresa y versión digital. http://aufop.com/aufop/revistas/lista • REVISTA MEDITERRÁNEA DE COMUNICACIÓN SOCIAL. http://www.rmedcom.org/ • REVUE GENERALE DE DROIT INTERNATIONAL PUBLIQUE. http://www.rgdip.com/ • RIE, Revista de investigación educativa. http://www.um.es/depmide/RIE/ • RIMCIS. Revista Internacional y Multidisciplinar de Ciencias sociales.. http://www.hipatiapress.info/hpjournals/index.php/rimcis • RISE. Revista Internacional de Sociología de la Educación. http://www.hipatiapress.info/hpjournals/index.php/rise • TANTAK. Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria. http://www.argitalpenak.ehu.es/p291-home/es • TRABAJO SOCIAL GLOBAL. www.tsghipatiaeditorial.com • ZERBITZUAN: Revista interuniversitaria http://zerbitzuan.net/
--	--

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

4. MODULUA: *Gizarte eta hezkuntza programen plangintza kudeaketa eta ebaluazioa*